



Curriculuma

Euskal Eskola Publikoa **Gaur Bihar**

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
GIZARTE ZIENTZIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIA



SARRERA

Giza taldeek garrantzi handia eman ohi diote garatu duten kulturaren belaunaldi berriei helarazteari. Gizartekotze zeregin horren zati handi batek, alde batetik, ikasleak hezteko dakar, bizi diren gizartea eta haren barruan planteatzen diren arazoak, iragan historikoa eta ezarrita dauden lurraldea ezagut ditzaten; eta, bestetik, herritar gisa prestatzea, dituzten betebeharrak beren gain har ditzaten, eta beren eskubideak erabili, tolerantzia, elkartasun eta parte-hartze jarrerak garatzen dituzten bidenabar.

Hala, Geografia eta Historia arloaren diseinuak elementu garrantzitsuak jasotzen ditu herritarrak hezteko, bizi diren ingurunearen jakitun izan daitezen, bai alderdi fisikoetan, bai sozial eta kulturaletan; Euskal Herriaren nortasun historikoa eta kultura espezifikoak osatzen dituzten ezaugarriak, hura barruan sartuta dagoen estatuen errealitate politikoak eta Europa ezagutzen dituzte. Konpromisoa eta elkartasuna ager ditzaten, egungo euskal gizartearen askotarikotasun sozial eta kulturala balioets dezaten, eta naturarekin, norberaren buruarekin eta lagun hurkoekin harreman mota berriak izan ditzaten.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, eta Geografia eta Historia arlotik, gizarte errealitatera hurbiltze analitikoagoa egiten da: aldi horretan kontzeptuak dibertsifikatu egiten dira, prozedurak zailagoak bihurtzen dira jakintza zientifikoari dagokionez, espazioak eta denborak hainbat mailatan aztertzen dira, eta jarrerak eta balioak finkatuz doaz.

Gizarte Zientziek barruan hartzen dituzten jakintza adarrek pertsonak gizartean dituzten jarduerak aztertzen dituzte, bai eta espazioarekin dituzten elkarrekiko erlazioak ere, iraganean bezala gaur egun ere. Ez dago gizarte errealitate konplexu osoa barne hartzen duen jakintza adarrik, baina Geografia eta Historia dira diseinu honetan presentzia handiena dutenak, elementu komunak eta beste adar batzuetako jakintzak jasotzen dituztelako, berez diziplina aniztunak izaki.



Geografiak eta Historiak eginkizun egituratzailea betetzen dute Gizarte Zientzien esparruan, edozein gizarte errealitate edo prozesu sartuta dagoen espazio eta denbora koordenatuak ezartzen dituztelako. Historiak ezaguerak eta metodoak eman behar dizkie ikasleei, gizarteek denbora igarotzearekin batera duten eboluzioa uler dezaten, eta Geografiak, gehienbat, espazioari dagokionez egin behar du gauza bera.

Ez dugu ahaztu behar arlo honetatik ekitea ikaslea inguratzen duen eta bera zatia den gertuko errealitatearen ezagutzari, eta hori abiapuntutzat hartu behar dugu espazioan urrutiago dauden beste errealitate batzuk ulertzeko, haietako zatia ere bai baita, eta haietan esku-hartze aktiboa duelako.

Alde horretatik, Europan oso aldaketa garrantzitsuak gertatzen ari dira; aldaketon ondorioz, Europako errealitatea berriz zehazten ari da. Europa batzeko prozesua garrantzi izugarri handiko proiektua da, alde guztietatik begiratuta, edozein gizarte motatan bizi baldintzak zehazten dituzten elementu gehien-gehieni eragiten dielako, eta etorkizun hurbilean oraindik gehiago eragingo dielako. Era berean, etorkizunera irekitako prozesu bat da, neurri handi batean gaur egun ikasgeletan prestatzen ari diren ikasleen belaunaldiak erabaki beharko duena; horregatik da hain garrantzitsua ikasleok haren ezaugarriak ezagutzea: jatorria, oinarri ideologikoak, erakundeak, funtzionamendua eta abar. Bai eta ekar ditzakeen abantailak eta desabantailak ere.



ARLOKO GAITASUNAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Gizarte Zientzien arloko Geografia eta Historian, amaierako aldi propedeutikoa den aldetik, lortzen diren gaitasun espezifikoaren ondorioz, ikasleak gauza izan behar du bizi den mundua ulertzeko funtsezko balio batzuetan oinarrituta; besteak beste, elkartasunean, beste kulturekiko errespetuan, tolerantzian, askatasunean eta ideia demokratikoen praktikan. Era berean, beharrezko tresna intelektualak bereganatu behar ditu etorkizunean, bizitzan zehar, beste ikasketa batzuk egin ditzan.

Kontuan hartuta curriculum honetan gaitasunei eta horiek garatzeko esparruei buruz egiten den definizioa, arlo honetako gaitasun espezifikoek bereziki lan egiten dute ezagutza esparruan eta afektibitatearekin zein komunikazioarekin zerikusia duenean. Inolaz ere ahaztu gabe hor daudela harremanen esparrua eta taldeetan, erakundeetan eta gizartean sartzeari lotutako esparrua; ekintzailetasun esparrua eta sensorioeragilea.

Zehazkiago, gure ustez, gaitasun horiek ingurune fisiko, historiko, geografiko, kultural eta abarren ezagutzaren eta horiekiko harremanaren garapena dira, eta ingurune horrekin eragin trukea izatea ahalbidetu behar dute, eta, hala, erraztu gertaeren ulerkuntza, eta haien arrazoiak zein ondorioena.

Aldi berean, ezinbestekotzat jotzen dugu gertaera eta prozesu historiko eta sozialak ulertzeko eta interpretatzeko beharrezkoak diren hainbat abilezia eta trebetasun ezagutzea.

Halaber, elkartasun-, errespetu-, tolerantzia-... balio eta jarrerekin zerikusia duten hainbat gaitasun definitzen dira, funtsezkoak baitira esku-hartze eraginkorra eta arduratsua izateko gizarte esparru guztietan.

ARLOKO GAITASUNAK

1. Gizartearen eboluzioa azaltzen duten kausa anitzeko faktoreak erlazionatzea, eta prozesu horretan kolektibitateek eta pertsonaia handiek betetako rola ulertzea, historiaren ikuspegi zabala eta kritikoa lortzeko.
2. Ordezkaritasun kontzeptua eta haren funtzionamendua aztertzea, sistema demokratikoa ulertzeko, eta horretan esku-hartze kontziente, kritikoa eta erabatekoa bultzatzeko.
3. Hainbat iturri zein euskarrirako irudiak, grafikoak, mapak, planoak, idatzizko dokumentuak, serie estatistikoak edo eskemak erabiltzea, interpretatzea eta egitea, hainbat erregistrotan (ahozkoan, idatzizkoan, informatikoan, artistikoan...) haien alderdi historikoaren, geografikoaren, artistikoaren, kulturalaren edo sozialaren sintesi ongi oinarritua egiteko.
4. Munduan dagoen askotarikotasun geografikoa antzematea eta horren jakitun izatea, eta, horretarako, ingurune fisikoko elementuak identifikatzea, eta aztertzea natur baliabideen erabilpena, planetako eremu sozioekonomiko, kultural eta politiko handiak bereizteko, eta horrek sortzen dituen gizarte eta ingurumen arazoekiko sentiberatasuna izateko.
5. Inguruko eta urrunagoko adierazpen artistiko garrantzitsuenak identifikatzea eta balioestea, gizadiaren garapen artistikoan kultura guztiek egindako ekarpenak aztertzeke eta desberdintzeke.
6. Jarrera eraikitzailea, kritikoa, irekia eta tolerantia barneratu eta garatzea, eztabaida eta eztabaidetan esku hartu eta ideiak ekartzeko eta talde lana sustatzeko.

7. Denbora-orientazioko kategoriak egituratzea eta erabiltzea (iragana, oraina eta etorkizuna); denboran dauden posizio erlatiboak (segida, aldi berekotasuna, diakronia, sinkronia); iraupenak (egitatezko gertaerak, egoeraren araberakoak, egiturazkoak, iraupen motzeko, ertaineko edo luzeko fenomenoak); denboraren neurketa (denbora-unitateak, denbora eta kronologia historikoa), gizartearen eboluzioa eta bilakaera historikoa ordenatzeko eta laburbiltzeko.
8. Ondare historiko, artistiko, kultural eta natural propioa aintzat hartzea eta balioestea, bai eta beste kultura batzuen ere, errespetatu eta defendatzeko bide den aldetik.
9. Denboran eta espazioan identifikatu eta kokatzea historian izandako prozesu eta gertaera garrantzitsuenak, gizadiaren eboluzio historikoaren ikuspuntu globala antolatu eta garatzeko.
10. Kultur askotarikotasuna balioestea, herriek eta banakoek beren nortasuna izateko eskubidea den aldetik, eta aintzat hartzea bizi den gizarte eta kultur komunitateen pluraltasuna, haietan esku-hartze eraginkorra izateko, tolerantzia eta beste kulturekiko errespetu jarrerak hartuz.
11. Gizarte garaikideetako arazorik larrienak aztertzea, arazo horiei buruzko iritzi pertsonal kritikoa eta arrazoitua izateko.
12. Geografiak, Historiak eta, oro har, Gizarte Zientziek bereizgarritzat dituzten oinarrizko ikertze teknikak, prozedurak eta tresna kontzeptualak aplikatzea, ikerketa eta azterketa txikiak egiteko (banaka eta taldeka), arloko berezko hiztegia zorrotz eta zehatz erabiliz.
13. Gertaera historiko-sozialen gaineko ezagutza zientifikoaren berezitasunak onartzea, haren emaitzen erlatibotasuna eta behin-behinekotasuna egiaztatzeko.



ARLOKO EDUKIAK

Arlo honetako edukien aukeraketa hiru eduki motatan oinarrituta egituratu da: kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak.

Kontzeptuzko edukiak hamar sailetan antolatu dira, eta horietan, nagusiki, Geografia eta Historiako gaiak biltzen dira, baina hurbileko beste zientzia batzuetako kontzeptuak ere agertzen dira. Kronologikoki, gizadiaren garapen osoa barne hartzen dugu, haren sorreratik gaur egun arte, eta garrantzi handiagoa ematen diegu denboran hurbilen dauden gaiei. Espazio esparruei dagokienez, garrantzi handiagoa ematen diegu ikasleak hurbilen ditueni (Euskal Herria), eta pixkanaka-pixkanaka ikuspegi eta errealitate zabalagoak irekitzen ditugu: Erreferentziako estatuak (Espainia/Frantzia), Europa...

Prozedurazko eta jarrerazko edukien zerrenda bakarra, irekia, malgua eta, oro har, kontzeptuzko edukien sail guztiei aplikagarria da.

Prozedurazko edukiak zerikusia dute trebetasun eta tresna intelektual batzuk lortzearekin, ingurune fisiko eta sozio-kulturala ulertzea, informazioa lortu eta prozesatzea, hipotesiak planteatzea eta arazoak konpontzea ahalbidetzeko.

Arlo honetan garatu beharreko jarrerak nagusiki hainbat balio azpimarratzen dituzte, besteak beste, errespetua eta tolerantzia, zorrotasuna eta objektibotasuna, esku-hartzea eta jarrera kritikoa... egungo gizarteetan planteatzen diren askotariko egoera eta arazo ugarien aurrean.

Eduki sailek ez dute esan nahi aldez aurretik ezarritako hurrenkera bat dagoenik; aitzitik, nahierara ordenatu eta banatu ahal izango dira aldi honetako lau ikasturteetan.

KONTZEPTUZKOAK

1. Lurra: gure ingurune fisikoa
 - Espazioaren pertzepzioa eta irudikapena: Hainbat eskala eta ezaugarritako irudi eta mapen irakurketa eta interpretazioa.
 - Lurra eguzki sisteman.
 - Lurraren ezaugarri fisikoak: erliebea, klima, landaredia, hidrografia, lurrak...
 - Planetako paisaia naturalak.
 - Euskal Herriaren, erreferentziako estatuen eta Europaren natur ezaugarriak.
2. Gizakia eta espazioa.
 - Gizakiaren eta espazioaren arteko interakzioak.
 - Populazioa: demografiari, egiturari, eredu demografikoei, joera demografikoei buruzko oinarrizko kontzeptuak. Populazioaren azterketa Euskal Herrian, erreferentziako estatuetan eta Europan.
 - Landa espazioa eta hiri espazioa: habitat motak.
3. Gizakia eta natur baliabideak.
 - Jarduera ekonomikoak: ezaugarri orokorrak.
 - Sektore ekonomikoak.
 - Sektore ekonomikoak Euskal Herrian, erreferentziako estatuetan eta Europan.
 - Garraioak eta komunikazioak
 - Natur baliabideen ustiapena eta horren arazoak. Baliabideak agor daitezke.
4. Antolakuntza ekonomikoa eta lan mundua.
 - Gizakien beharrak eta ondasun ekonomikoak.
 - Zerbitzu ondasunen ekoizpena, banaketa, trukea eta kontsumoa.
 - Enpresa produkzio unitate gisa. Aldaketak lan munduan
 - Antolakuntza lan munduan.
 - Sistema ekonomikoak.
 - Jarduera ekonomikoaren mundializazioa, eta horretatik ondorioztatutako arazoak. Elkarren mendekotasuna eta globalizazioa.

5. Ezaguera historikoa: aldaketa eta iraunkortasuna.

- Iturri historikoak.
- Denbora historikoa (kronologiako hasi-masiak), aldaketa eta iraunkortasuna.
- Kausa aniztasuna. Gertaera eta prozesu historikoen kausen eta ondorioen identifikazioa.

6. Gizarteak historian barrena.

- Hominizazio prozesua.
- Gizarte harrapakariak eta biltzaileak.
- Historiaurrearen alderdi adierazgarriak Iberiar penintsulan eta Arku Atlantikoan.
- Historiaurrea Euskal Herrian.
- Lehen nekazaritza, abeltzaintza eta hiri gizarteak. Mesopotamia eta Egipto.
- Mundu klasikoa: Grezia eta Erroma.
- Antzintasuna Iberiar Penintsulan eta Euskal Herrian. Erromanizazioa Euskal Herrian.
- Bizantziar Inperioa.
- Gizarte feudalak.
 - Sistema feudala.
 - Europa feudala: Europaren sorrera.
 - Euskal Herria Erdi Aroan. Feudalismoa Euskal Herrian.
 - Al-Andalus. Kristau erreinuen agerpena eta garapena Iberiar Penintsulan.
 - Artea Erdi Aroan.
- Estatu Modernoaren sorrera.
 - Berpizkundea, Erreforma eta Kontraerreforma.
 - Monarkia modernoaren garapena Espainiako eta Frantziako espazioan, XV. mendetik XVII. mendera arte, eta haien eragina euskal esparruan.
 - Munduko lehen sistema kolonialaren eraketa.
 - Sistema foralaren eraketa eta sendotzea Euskal Herrian.
 - Barrokoa.
- Erregimen Zaharreko gizarteak.
 - Argien Mendea.
 - Argien Mendea Euskal Herrian.

- Despotismo argitua. Erreformismo borboitarra.
- Gizarte garaikideak.
 - Erregimen Zaharraren krisia.
 - Iraultza burgesa: iraultza industrialia eta iraultza liberalak.
 - Karlismo-liberalismo borroka. Foruen ezeztapena eta nazionalismoaren sorrera.
 - Industrializazioa Euskal Herrian. Langile mugimenduaren sorrera. Sozialismoa.
 - Espainia eta Euskal Herria eta erreferentziako Estatuak, XIX. eta XX. mendeetan.
 - Gizarte aldaketak eta gatazkak, XX. mendean. Erregimen politiko nagusiak.
 - Egungo mundua
 - Kultur eta arte adierazpideak XIX. mendean.

7. Botere politikoaren antolaketa egungo munduan.

- Erregimen demokratikoetako oinarrizko printzipioak eta erakundeak.
- Espainiako Estatuaren antolamendua: 1978ko Konstituzioa.
- Euskal Herriko erakunde politikoak eta lurralde antolaketa.
- Europar Batasuna, erakundeak eta funtzionamendua.
- Nazioarteko erakundeak.
- Nazioak, estatuak, herriak eta mugak. Tentsioak eta gatazkak.
- Lankidetzak eta elkartasun politikak.
- Osasuna mundu osoan, eta munduko herrien arteko desberdintasunak.
- Globalizazioa eta botere gune berriak.

8. Gatazka eta herritarren esku-hartzea

- Egungo gizarteetan gertatutako gizarte aldaketetatik ondorioztatutako gatazka mota berriak: genero indarkeria, fundamentalismoen gorakada, bazterketa-bereizkeria...
- Esku-hartze politikoa, legeak eta erakundeak, gatazkak konpontzeko bide gisa.
- Herritarren oinarrizko eskubideak. Haien bilakaera historikoa.
- Herritarrek esku hartzeko erak: alderdi politikoak, gizarte erakundeak, asoziazionismoa, GKEak, presio taldeak...

9. Gizarte kulturantzunak

- Sistema soziokultural baten funtsezko elementuak.
- Nortasunen pluraltasuna.
- Kulturen arteko harremana.
- Bizikidetzeta eta gatazka gizarte kulturantzunetan: arrazakeria, gatazka etnikoak, erlijiozkoak...
- Gutxiengoak, emigratzaileak eta bazter taldeak.
- Euskal Herria, errealitate kulturantzuna.
- Egungo mundu ikuskerak: erlijiozkoak eta erlijiozko ez direnak.

10. Kultur hizkuntzak eta hedabideak egungo gizartean.

- Arte plastikoak XX. mendean.
- Hizkuntza artistiko berriak: arte plastikoetatik ikusmen-arteetara.
- Artea eta kultura Euskal Herrian XX. mendean.
- Hedabideen ezaugarriak egungo gizartean.
- Masa hedabideak: garapena eta eragina egungo munduan.
- Teknologia Berrien eragina.

PROZEDURAZKOAK

1. Ingurune fisikoaren eta giza jardueraren arteko interakzioen azterketa.
2. Alderdi geografiko, historiko, kultural eta abarrei buruzko hipotesien planteamendua, formulazioa eta egiaztapena.
3. Hainbat ezaugarri eta eskalatako planoak, grafikoak eta mapak irakurri, interpretatu eta egitea.
4. Gertaerak, datuak eta lekuak mapetan, planoetan, grafikoetan, ardatz kronologikoetan eta abarretan kokatzea.
5. Informazio garrantzitsua lortzea eta erregistratzea, hainbat bitarteko edo informazio iturri eta landa lan baliatuz.
6. Iturri dokumentalekin zein dokumental ez direnekin, lehenengo eta bigarren mailako iturriekin, lan egiten hastea.
7. Fenomeno historikoren baten aldaketa prozesuak irudikatzea eta azaltzea, diagramen, denbora ardatzen, taula kronologikoen eta abarren bidez.
8. Gertaera historikoen kausa aniztasunaren azterketa.
9. Denbora historikoa aintzat hartzea: kronologiaren hasi-masiak, aldaketa eta iraunkortasuna.
10. Gizarte historikoen eta egungoen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak identifikatzea, aztertzea eta alderatzea.

11. Sintesi lanak (banaka edo taldeka), ikerketa edo azterketa errazak planifikatzea eta egitea.
12. Hainbat garai eta kulturatako artelan batzuen konparaziozko azterketa, analogiak eta desberdintasunak bilatuz, eta elkarren arteko eraginak antzemanaz.
13. Egungo gertaera garrantzitsuen azterketa, aurrekari historiko-geografikoak ikertuz.
14. Hainbat kulturari buruzko informazioa jaso, aztertu, interpretatu eta era kritikoan ebaluatu, hainbat iturri eta hedabide erabiliz.
15. Hedabideek gertaera jakin baten inguruan dituzten ikuspuntuei eta betetzen duten eginkizunari buruzko hipotesiak planteatzea.
16. Egungo gertaera edo arazo batez hainbat masa hedabidek (prentsak, irratiak, telebistak...) emandako informazioen azterketa eta ebaluazio kritikoa.

JARRERAZKOAK

1. Espazioa antzemateko eta aztertzeko sentiberatasuna eta interesa, elementu fisikoen eta giza jardueraren arteko erlazioen adierazpidea den aldetik.
2. Gizarteek irauteko natur baliabideak zentzuz erabili behar direlako kontzientzia hartzea, eta planetako baliabideen kontserbazio eta defentsaren aldeko jarrera.
3. Zorroztasuna eta objektibotasuna iturri historikoen erabilpenean eta interpretazioan.
4. Iraganarekiko interesa eta jakin-mina, oraina ulertzeko bide den aldetik.
5. Gizarte guztietako arte eta kultur adierazpideak balioetsi eta errespetatzea.
6. Aintzat hartzea gizadiak aro historiko guztietan egindako aurrerapena eta lorpenak; haien oinordeko eta gordetzaile garela aitortuta.
7. Gure ondare historiko-artistikoaren aberastasuna eta askotarikotasuna balioestea, errespetatzea eta gozatzea, eta haren kontserbazio eta defentsaren alde jarduteko jarrera.
8. Printzipio eta erakunde demokratikoak balioestea eta errespetatzea.
9. Kide zaren kolektibitatearen arazoetan esku-hartze eraginkorra izatea.

10. Jarrera kritikoa gertaera historikoen aurrean.

11. Jarrera kritikoa eta arduratsua gizarte gatazken aurrean.

12. Osasunean eta gizarte ongizatean dauden aldeez sentiberatzea.

13. Esku-hartze eraginkorra eta eraikitzailea izatea talde lanetan.

14. Interesa beste kultura batzuk ezagutzeko, eta haiek oinarritzat daukaten sistema soziokulturalaren elementuak ulertzeko.

15. Gurea ez bezalako gizarteek eta kulturek dituzten bizitzeko modu, sinesmen eta jarrerekiko tolerantzia, enpatia eta errespetua, eta askotarikotasuna gizadiaren aberastasun gisa hartzea.



ARLOA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Gaitasun bakoitza ebaluazio irizpide sail bati lotua dago, baina hori ez da itxia, eta ikasleak ikasitakoaren ebaluazio orokorra eta hezigarria egitea errazteko zehaztu da.

Irizpideok laguntza emango digute jakiteko ikasleak zein neurritan bereganatu dituen ezaguera teorikoak, prozedurazko ezagutzak, planteatutako arazo edo gatazken aurreko jarrera positiboa; hitz batean, kasuan kasuko gaitasuna.

Alde horretatik, ebaluazio irizpideak ebaluaziorako erreferentzia nagusietako bat dira.

Haien bidez, irakasleak ikasle bakoitzaren ikaste mailaren adierazleak lortuko ditu, eta irakaskuntza prozesua erritmo guztietara egokitze modua izango du. Era berean, gaitasunek eta dagozkien ebaluazio irizpideek ikasleen garapen mental eta psikologikoa errespetatzen dute, eta horretara egokitzen dira.

GAITASUNAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
<p>1. Gizartearen eboluzioa azaltzen duten kausa anitzeko faktoreak erlazionatzea, eta prozesu horretan kolektibitateek eta pertsonaia handiek betetako rola ulertzea, historiaren ikuspegi zabala eta kritikoa lortzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gertaera historikoak interpretatzen ditu, eta erlazionatzen. • Historiako edo egungo gertaeraren baten kausa-ondorio erlazioa identifikatzen du. • Testu historiko erraz bat iruzkintzen du.
<p>2 . Ordezkaritasun kontzeptua eta haren funtzionamendua aztertzea, sistema demokratikoa ulertzeko, eta horretan esku-hartze kontziente, kritikoa eta erabatekoa bultzatzeko. *</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Erakundeen ordezkaritasun funtzioak bereizten ditu, eta bizikidetzaren demokratikorako bide gisa balioesten ditu. • Gizartean esku hartzeko erakunde nagusiak identifikatzen ditu. • Euskal Herriko, Espainia-Frantziako eta Europako esparruetan politikan esku hartzeko erakundeak ezagutu eta errespetatzen ditu. • Bizikidetzaren demokratikoaren arauak onartzen ditu, eta badaki zein diren zuzenbide estatuetako funtsezko printzipioak. • Badaki zein diren herritarren eskubide eta betebeharrak nagusiak.
<p>3. Hainbat iturri zein euskarritako irudiak, grafikoak, mapak, planoak, idatzizko dokumentuak, serie estatistikoak edo eskemak erabiltzea, interpretatzea eta egitea, hainbat erregistrotan (ahozkoan, idatzizkoan, informatikoan, artistikoan...) haien alderdi historikoaren, geografikoaren, artistikoaren, kulturalaren edo sozialaren sintesi ongi oinarritua egiteko. *</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Grafikoak egin eta interpretatzen ditu. • Lortutako datuekin mapak, eskemak, grafikoak, taulak eta abar egiten ditu. • Mapa bat hartuta, leku jakin bat kokatzen du. • Mapetan oinarrituta, ibilbideak aurreikusten ditu, eta espazioaren barruan kokatzen da. • Askotariko hainbat iturritatik gai geografikoei buruzko informazio garrantzitsuak lortzen ditu, eta erabiltzen. • Oharrak hartzen ditu, idatzizko iturriak kontsultatzen ditu, datu base errazetara sartzen da, informazioaren teknologien posibilitateak baliatuz.

<p>4. Munduan dagoen aniztasun geografikoa antzematea eta horren jakitun izatea, eta, horretarako, ingurune fisikoko elementuak identifikatzea, eta aztertzea natur baliabideen erabilpena, planetako eremu sozioekonomiko, kultural eta politiko handiak bereizteko, eta horrek sortzen dituen gizarte eta ingurumen arazoez sentiberatasuna izateko.*</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Espazio geografikoen eta lurraldeen sorreran eta antolaketan gizartearen eta natur baliabideen artean gertatzen diren interakzioak azaltzen ditu. • Baliabide motak bereizten ditu, giza esku-hartzearen maila eta zer nolakoaren arabera, eta haren ingurumen ondorioak ebaluatzen ditu. • Natur fenomenoak sailkatzen ditu. • Landa, industria, zerbitzu eta hiri espazioak identifikatzen ditu. • Espazio geografiko bat deskribatzen du, eta haren ezaugarri nagusiak adierazi. • Betetzen duen espazio fisikoarekiko eta horren ezaugarriekiko gizarte jakin baten ezaugarriak zerrendatzen ditu.
<p>5. Inguruko eta urrunagoko adierazpen artistiko garrantzitsuenak identifikatzea eta balioestea, gizadiaren garapen artistikoan kultura guztiek egindako ekarpenak aztertzeke eta desberdintzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Arte estilo nagusietako artelanen oinarritzko identifikazioa egiten du. • Aintzat hartzen ditu artelanen balio estetikoak. • Hainbat garai eta lekutako artelan batzuk alderatzen ditu. • Aintzat hartzen ditu analogiak eta desberdintasunak, eta batzuek besteetan duten eraginaz ohartzen da.
<p>6. Jarrera eraikitzailea, kritikoa, irekia eta tolerantzia barneratu eta garatzea, eztabaida eta debateetan esku hartu eta ideiak ekartzeko, talde lana bultzatzea.*</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ekimena dauka, eta ideiak ematen dizkio taldeari. • Taldeak hartutako erabakiak errespetatzen ditu.
<p>7. Denbora-orientazioko kategoriak egituratzea eta erabiltzea (iragana, oraina eta etorkizuna); denboran dauden posizio erlatiboak (segida, aldi berekotasuna, diakronia, sinkronia); iraupenak (egitatezko gertaerak, egoeraren arabekoak,</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Mapa eta ardatz kronologikoen bidez, iragana, oraina eta etorkizuna bereizten ditu. • Denbora segidak grafikoki irudikatzen ditu.

egiturazkoak, iraupen motzeko, ertaineko edo luzeko fenomenoak); denboraren neurketa (denbora-unitateak, denbora eta kronologia historikoa), gizartearen eboluzioa eta bilakaera historikoa ordenatzeko eta laburbiltzeko.	<ul style="list-style-type: none"> • Gertaera historiko baten edo gertaera historikoen multzo baten aurrean, aldaketez, eboluzioaz eta irauten duenaz ohartzen da.
8. Ondare historiko, artistiko, kultural eta natural propioa aintzat hartzea eta balioestea, bai eta beste kultura batzuen ere, errespetatzeko eta defendatzeko bide den aldetik.*	<ul style="list-style-type: none"> • Ondare natural, historiko, kultural eta artistikoa balioetsi eta errespetatzen du. • Badaki zer egin hura kontserbatu eta hobetzeko.
9. Denboran eta espazioan identifikatu eta kokatzea historian izandako prozesu eta gertaera garrantzitsuenak, gizadiaren eboluzio historikoaren ikuspuntu globala antolatu eta garatzeko.*	<ul style="list-style-type: none"> • Europaren eta munduaren historiako funtsezko mementoak identifikatzen ditu, eta bereziki aipatzen du Euskal Herrian izan duten eragina. • Gertaera garrantzitsu eta gizarte prozesu batzuk munduaren historiako zibilizazio aldi handiekin erlazionatzen ditu.
10. Kultur aniztasuna balioestea, herriek eta banakoek beren nortasuna izateko eskubidea den aldetik, eta aintzat hartzea bizi den gizarte eta kultur komunitateen pluraltasuna, haietan esku-hartze eraginkorra izateko, tolerantzia eta beste kulturekiko errespetu jarrerak hartuz.*	<ul style="list-style-type: none"> • Herri batekoa den aldetik bere nortasunaren eta hartan zein European dauden beste nortasun batzuen oinarriko ezaugarriak identifikatzen ditu. • Gizartearen oinarriko ezaugarriak bereizten ditu. • Beste kulturak, sinesmenak... errespetatzen ditu. • Egungo mundu ikuskera nagusiak osatzen dituzten elementuak identifikatzen ditu, eta haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak erkatzen. • Kultur desberdintasunak onartzen ditu.
11. Gizarte garaikideetako arazorik larrienak aztertzea, arazo horiei buruzko iritzi pertsonal kritikoa eta arrazoitua izateko.	<ul style="list-style-type: none"> • Gizartearen dauden gatazka sozial, erlijiozko, politiko eta ekonomikoak eta haien kausak bereizten ditu.
12. Geografiak, Historiak eta, oro har, Gizarte Zientziak	<ul style="list-style-type: none"> • Argi egiten ditu erantzuna aurkitu nahi diren galderak.

<p>bereizgarritzat dituzten oinarritzko ikertze teknikak, prozedurak eta tresna kontzeptualak aplikatzea, ikerketa eta azterketa txikiak egiteko (banaka eta taldeka), arloko berezko hiztegia zorrotz eta zehatz erabiliz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ondorioak ateratzen ditu planteatutako kontuei buruz. • Euskarri egokiak sortzen ditu bildutako informazioak erregistratzeko. • Kritikoki aztertzen ditu dokumentu historikoak, ezarritako protokoloen arabera. • Informazioa berriz antolatzen du esanguratsua izan dadin. • Ondo antolatutako eskema baten arabera idazten du. • Gizarte Zientziek berezkoa duten hiztegia erabiltzen du beharrezkoa denean. • Lanaren gaia zehazki zehazten eta mugatzen du.
<p>13.Gertaera historiko-sozialen gaineko ezagutza zientifikoaren berezitasunak onartzea, haren emaitzen erlatibotasuna eta behin-behinekotasuna egiaztatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gertaera historiko, sozial, geografiko... beraren gaineko interpretazioak bereizten ditu.